

# Hitz eta Pitz

## Mahaingurua: HAUR POESIA BILTZARRA

DONOSTIA, 2002KO AZAROAREN 15A.

Partaideak:

ANTONIO GARCÍA TEJEIRO, ANTONIO GÓMEZ YEBRA,  
JUAN KRUIZ IGERABIDE ETA MIQUEL DESCLOT.



**Galtzagorri:** Lehenengo galdera goizean Miquel Desclolek komentatu duen zerbaiten harira dator. Oker ez banabil, esan du idazle handiek, idazle onek ere egin beharko luketela haur poesia. Ez dakit guztiok egongo zareten ados, zure planteamendua baka-rik den, Miquel, edo besteok ere bat zatozten.

**Miquel Desclot:** Kontua ez da idazle handiek haurrentzat idatzi behar dutela uste dudala, bai-rik eta desiragarri litzatekeela idazleek, adjetibo-rik gabe, noizean behin askatu eta haurrentzat idatz zezatela munduko gauzarik naturalena izan-

go balitz bezala. Hori da kultura europar nordikoetako idazleek egiten dutena: Elliot adibi- dez, jaun hain jakintsu eta jantzia, bankaria ziru- diena, gai da katuen liburu hori idazteko, hain ederra dena, zoragarria. Edo Brech, bere gogor eta ez dakit zenbat gauza gehiagoren famarekin, baina haurrentzako poesia bilduma liluragarria idatzi zuena. Uste dut oso osasungarria litzateke- ela hori guretzat, hots, literaturako izen handiek noizean behin haurrentzako liburuak idatz zitza-

tela munduko gauzarik naturalena bailitzan. Desiragarria litzateke, bai; baina, jakina, ez da beharrezkoa mundu guztiak idaztea haurrentzat. Ziurrenik askok ez lukete jakingo...

**Antonio García Teijeiro:** Nik oso ondo ulertzen dizut. Ni ere pentsakor gelditu naiz; gure beharren ikuspuntutik ez da beharrezkoa, pentsatu dut. Baina, bai, bada beharrezkoa zuk diozunagatik. Idazle horiek haurrentzat idatziko balute, jarduera hau duin ikusiko litzateke. Benetan esan behar dut... horrelako zerbait esan duzu goizean, eta kontuz erabiliko dudan hitzarekin, baina hau da nik Galizian dudan esperientzia, gehienek mesprezatu egiten gaituzte. Behin Galiziako aldizkari batean han oso ezaguna den idazle baten zerbait irakurri nuen, ahaltsua da eta oso poeta ona, eta horrelako zerbait zioen: «haurrentzako poesiak ez du zentzurik, nik ez nukeen inoiz haur poesia idatziko». Eta egia esan, denek pentsatzen dutena esan zuelako mindu ninduen: haurrentzat idazten dugun idazleak nagusiki bigarren mailako idazle garela. Horren zalantzarik ez dago, ikustezinak gara sarritan. Nik lauzpabost liburu ditut helduentzat, baina harro nago batez ere haurrentzat idazten duen idazlea izateaz. Beraz, horri dagokionean bat nator zurekin, orokorrean eta nik dudan esperientzia kontuan hartuta behintzat, mesprezatu egiten dute haur literaturaren generoa. Eta benetan, pena handia eragiten dit nagusikeria horrek, nire ustez maltzurkeria moral dezente handia adierazten baitu, errealitatea ez dutela ezagutzen eta, ez dakit denborarekin haurrek beren liburuak irakurriko dituztela espero duten; askotan ziurrenik ez, Galizian zehazki.

**Miquel Desclot:** Poetei eta hurrei eginiko mesprezua da.

**Antonio García Teijeiro:** Haurrak bigarren mailako hartzaileak direla uste dutelako, eta José Antonio Alcañizo nire lagunak zioena: «ez zaio inori bururatzen pediatria bigarren mailako medikua dela». Eta arrazoi osoa du. Horri dagokionean ados nago beraz zurekin eta, benetan, pena


handia ematen dit haur literatura bezalako gauza garrantzitsua mesprezaz dezaten.



**Antonio García Yebra:** Sakonean kontua da ez direla egiteko gai, ez dira ausartzen. Ni, zorionez, Jorge Guilléne lagun izan nintzen 77tik hil zen arte, gainera bere lanari buruzkoa izan zen nire doktoratu tesia, eta beti esan zidan: «nik bizitza osoan zehar izan dut haurrentzako poesia liburu bat idazteko asmoa. Ez dut astirik izan». Eta atsekabe horrekin geratu zen. Baina haren azken urteetan, izan zen seme-alabei eskainitako poemak, eta gero bilobei eskainitakoak, eta birbilobei eskainitakoak bildu zituenik, eta poeta hil baino gutxi lehenago *Niños* izenburuko liburuan bildu zituen. Eta oso pozik zegoen hori behintzat irten zelako. Baina idazle gehienek gai ez direlako mesprezaten dute. Askok, ahaleginduta ere, ez lukete lortuko. Askok, nahi duten domina eta gurutzeak paparrean jarrita ere, ez lukete lortuko haur poesia duina idaztea.

**Juan Kruz Igerabide:** Euskal literaturari dagokionean nik ez dut halako mesprezurik somatu. Urte askotan zehar ez da izan haur poesiarik, hori bai. Iparraldeko tradizioko poeta nagusietako batek, Otsobik, literaturaren historiari eta agertzen denak, haurrentzat idatzi zuen nagusiki. XIX. mendean. Antoniok kontatutakoa bezalako errefusaterik ez dut nik bizi izan. Egia da egokitu zaidala euskal literaturako izen handien poesia berrikusi eta pintzekin atera behar izana haurrentzako izan daitekeena. Hori egia da; ez da egin izan, besterik gabe. Bestetik, esan behar da haur poesia idazteak genero bat menperatzea eskatzen duela; batek egin dezake poesia satiriko ona, baina poesia lirikoa egiten hasten denean ez zaio irtetzen, edo antzerkia, eta porrota. Beraz, haur poesia beste genero bat da, menperatu egin behar dena, landu. Eta badaude hor galdu egiten diren poetak. Beste azpigerenero batzuk landu dituzte. Hori izango da beharbada kontua, baliteke zenbait girotan izatea mesprezu hori. Narra-

## ↪ Hizpide ↪



ziaren inguruan, bai, entzun izan ditut halako esaldiak: «luma egiteko idazten dut haurrentzat, eta lan garrantzitsuak helduentzat egiten ditut, haurrena entretenitu eta atsedean hartzeko egiten dut». Hori entzun izan dut, prosari dagokionean.

**Antonio García Yebra:** Handi-handiek, benetakoa lehenek ez dute halakorik esaten, ez dut uste lehen-lehen gutxi horiek hori diotenik. Horiek haur poesia egitea oso zaila dela uste dute. Gero, lehenak direla pentsatzen duten arren ez direnek, horiek mesprezatzen dituzte generoa eta bertan mugitzen garenok. Eta ez dakit bigarren, hirugarren edo laugarren mailako generoa den; halakotzat hartzen dute argitaletxeek. Ia esango nuke ehunerainoko mailetan lehenean gaudela, izan ere haur bilduma bat agertzen denean ehun liburutik bakarra baita poesia. Uste dut *Ur poema* batzuk daudela hor zehar berrehun liburutik gorako bilduma batean, poesia liburu bakarra dela uste dut.

**Antonio García Teijeiro:** Bi daude.

**Antonio García Yebra:** Beno, baina berrehun eta koska direnez, zuzenak dira nire kontuak, lau edo bost, zenbat liburuko? Kopurutxo horretan

kokatzen gaituzte, eta beste guztiak prosazkoak dira. Eta antzerkia, bat ere ez. Eta aipatu gabe bilduma hau aipatu badut ere, beste bildumei ere gauza bera gertatzen zaie, eta, nik dakidala, hiru poesia bilduma baino ez daude: bat Ajonjolí, aipatu duguna; beste bat Ediciones de la Torrerena, Vicente Alexander haurrentzako, Federico García Lorca haurrentzako, ... Idazle handiak gure gurdira ekartzeko modu bat da. Eta azkenik hirugarrena, Málagaiko Diputazioan neuk zuzentzen dudana, poesia liburuak bakarrik dituena, koloretan ilustratua. Espainiako onena da. Ez, gaztelaniadun eremuko onena da, gaztelaniatzko munduko onena. Onena; ez dago besterik koloretan ilustratua, paper kalitate honekin, ilustrazio kalitate honekin eta testu kalitate honekin. Gero utziko ditut hemen aleak, inork ikusi nahi baditu ere, eta gero errezitatuko dut bilduma honetako poemaren bat. Tira, eskerrak badagoen zerbait, eta orain badago baina agian datorren urtean ez da ezer izango, kontu politikoak direla eta, organo politiko baten menpe baitago, Málagaiko Diputazioa alegia. Bitxia dena da bilduma hau PP nagusi zela hasi izana, gero PSOE eta IUren arteko koalizioa izan zen eta kontu honetaz IU arduratu zen, eta orain lehen baino askoz ere gusturago daude. Beno, ni poz-pozik; eta ez dute bilduma atzera bota, sustatzen ari dira, baina datorren urtean, alderdiz aldatuta, auskalo zer gerta daitekeen. Baina oraingoz hor dago lana, ikus daiteke. Zorionez badago beraz zerbait, asko ez, baina bada zerbait.

**G.:** Beno, badirudi badela mesprezu moduko bat haur poesiarekiko zenbait arlotan: idazleen aldetik, argitaletxeen aldetik –dirudienez lehen-tasuna ematen ez diotenak–, eta administrazioaren aldetik. Baina bestetik, badirudi beste arlo batzuetan aintzatetsia dagoela, irakaskuntzan adibidez, uste dut poesiak, ez oso hedatua baina baduela presentzia, testu liburuetan jasotzen da behintzat. Edo hau ere ikusten duzue argitaletxeen maila berean?



**Antonio García Teijeiro:** Nik uste dut haur poesia, batez ere etxean garatu beharko litzatekeela, printzipioz etxean eman behar da poesia, ahozko transmisioaz ari gara, etxeak beharko luke izan eremu egokia. Uste dut eskolak denerako ematen duela eta eskolan gertatzen ez dena ez da inon gertatzen, beraz, poesia izan behar da eskolan ere. Baina gauza gehiago dago eskolarako eta uste dut, hemen irakasle asko dago, uste dut dena erortzen dela eskolaren gainera, baliabiderik gabeko eskolara, betiko bolondresak dituen eskolara, ibaian gora diharduen eskolara, gainezka dagoen eskolara. Jakina, poesiak egon behar du eskolan, eta ez dut onartzen irakasleak nekatuta dagoela esatea eta horregatik erakusten diola bizkarra poesiari. Gutariko bakoitzaren arazoa da. Nik beti esan izan dut, hemen esaten ari garen guztiaz at, poesia normalizatuko dela eskolatik irteten denean, eta eskola ez den eremuak ere naturaltasunez onartuko duenean badela haur poesia, eta literatura orohar esango nuke. Eskolaren hain menpe egongo ez den unean, ez eskolatik desagertzen denean –hori inolaz ere, eta argi gera dadila–, eskolako hormak naturaltasunez gainditu ahal izango dituenean, orduan hitz egin ahal izango dugu literaturaren normalizazioaz. Baina ni, egia esan, oso pesimista naiz honi dagokionean.

**Miquel Desclot:** Nik esan nahi dut eskola dagoelako irakurtzen dutela haurrek poesia; helduek, aldiz, ez dute jada poesiarik irakurtzen.

**Antonio García Teijeiro:** Eta oinarrizko arazoa da irakasleek orokorrean prestakuntza poetiko oso kaskarra dutela eta kexu dira, eta kexu dira trebakuntza hori izan ez dutelako. Beraz, beldurra ematen die arazoari aurre egiteak, poesia eskolan lantzen hasteak. Sarritan joan izan behar izan dut irakasleei hitzaldiak ematera arazotik nola irten ez dakitelako. Beldurra zaio generoari.

**Antonio García Yebra:** Baina bada sintoma on bat ere, zuk diozuna hain zuzen ere, etengabe ari direla laguntza eske, eta gero eta gehiagotan ni ere, eta baita hemen gauden guztiok, eskola as-

kotara joaten gara han eta hemen; Andaluzia osoan zehar ibiltzen naiz ni, eta baita Espainiako beste toki batzuetan ere, izan bainaiz Euskal Herrian ere, eta beste toki askotan. Andaluzian zehar Centro Andaluz de las Letras delakoaren eskutik, han eta hemen poetak paseatzen dituen, hala haurrentzat nola helduentzat. Eta entzule gehiago eta onarpen handiagoa, noiz?, haurrak daudenean. Helduentzako saioetan zortzi, zazpi, sei... egon ohi dira; eta pixkat gehiago tokian tokiko elkarteren bat baldin badago asko mugitzen dena. Baina haurrak daudenean, orduan bai, orduan badago entzulegoa. Haurrak baitira eskolara joaten direnak, herri liburutegietara joaten direnak; helduak ez dira joaten, besterik gabe ez dira joaten.


**Antonio García Teijeiro:** Bitxia da arrazoi ezberdinengatik ekintza poetikoari buruzko ezjakintasuna. Nik poesia liburuak eta narrazio liburuak ditut, eta zaila da poesia liburuak ez agintzea eskolan; eskolan agintzen direlako bizi dira poesia liburuak. Irakasleak askotan beldur dira poesia irakurtzeko agintzeko, lehen aipatutako




## ↪ Hizpide ↪

beldurra dela eta, baina batzuetan, edozein dela arrazoia, animatzen direnean, poema liburu bat agintzen dute eta poetaren bat eramaten dute eskolara, eta ziurta diezazueket eskola horietara joan eta hurrekin aritzen naizenetan, eta sortzen eta jolasten hasten garenean, irakasleak harri eta zur geratzen direla. Ez baitzekiten poesiak halako jolas eman zezakeenik. Egileak eskolara gonbidatzeaz hitz egiten denean, ez dira ia inoiz poetez ari, poetak egile izango ez bagina bezala edo. Baina bertara iritsi eta jardunean hasi eta bizitza da-goela ikusten dutenean, atsegin eragile dela, haurrak engantxatu egiten direla, orduan harritu egiten dira irakasleak, eta baita ni ere, maisutzat hartzen baitut neure burua. Eskolak ematen dituenak, jakina (barrezka).

**G.:** Eskolaren gaia hemen, hitzaldietan, irten den zerbait da. Baina beste gai bat folkloreak berreskuratzearena izan daiteke, tradizioarena. Poesia idazle, sortzaile, ikerlari eta dibulgatzaileak zaudetela aprobetxatuz, zuek egiten duzuen poesiaren barruan berrikuntza eta tradizioaren mundua nola ikusten duzuen jakin nahi nuke, zein neurritaraino islatzen dituzten folklorea, tradizioa, leloak... lehen Ana Pellegrinek hitzaldian aipatutakoaren haritik. Eta oinarri honetatik abiatuta, noraino den berrikuntza.



**Juan Kruz Igerabide:** Euskal haur poesiari dagokionean, poesia argitaratu dugun guztiok abiatu gara zuzenean ahozko tradizioetik. Lehenengo umetan dezente edoskitu dugulako artean nahiko bizirik zegoen tradizioetik, eta bigarren hemen badugulako ahozko genero bat oraindik indarrean dena, eta arrakasta handia duena, bertsoaritzaz alegia. Nik poesiaren azpigerotzat dudana, poesiaren zati bat, ez da poesia osoa baina bada herri poesiaren zati bat, gorantza doana eta neurrigabekeria unea ere izan duena. Bazirudien hori baino ez zegoela, baina bestetik, ahozko literaturako beste genero batzuk lantzen ari garenoi bultzada eman digu, oso bultzada handia. Oso hurbil izan dugu. Horrez gainera, niri dagokidanean, ahozko literatura espainiarrak ere eragin handia izan du, edo gaztelaniaz egiten den galziarrak, Portugaletik heldu zaidan zerbaitek eta fantzes tradizioetikako zerbaitek. Honekin zera esan nahi dut: tradizioa bai, baina oso tradizio zabala, tradizio hauek Erdi Arotik baitaude harremanetan –Santiagorako bidea eta–, eta euskal ahozko tradizioa osatu egin da, forma eman dio tradizio horri bere hizkuntzan, baina etengabe edan izan du iturri europarretatik. Oso ondo ikusten da hau; piezarik gehienek paralelismoa dute Frantzian, Espainian, Portugalen. Hortik abiatu gara bada, eta gero irakurketaren eragina dago;





euskal idazle batzuk beharbada gehiago jotzen dute tradizio europar ingelesera, nigan pisu handia izan du tradizio espainiarrak, baina badira hemen egile italiar edo Europaren erdialdekoei begiratzen dietenak.

**Miquel Desclot:** Bai, ahozko tradizioa zen geneukan haur genero bakarra, hori genuen abiapuntu bakar eta egiten dugun guztia da tradizio. Dena baita lehen zegoenaren jarraipena; hausten baduzu ere, zure atzean sentitzen duzulako hausten duzu. Dena da tradizioa, dagoenetik bakarrik abia zaitezke, eta dagoena ahozko tradizioa da. Beraz, normala da genero honetan idazleak ahozko tradizioetik abiatzea, hau da, folkloretik. Ahozko tradizioa folklorea da azken buruan, herriaren jakinduria alegia.

**Antonio García Teijeiro:** Nik ahozko tradizioari asko zor diodala uste dut, guztiok bezala. Berdina errepikatzea dela iruditzen zait. Nik poesia ulertzeko moduan eragin handia izan zuten bi poeta badirela ere onartzen dut. Bata Federico García Lorca. Ez naiz inoiz ausartzen Ana Pelegrinen aurrean García Lorca eta tradizioari buruz ezer esaten, bai baitakit berarentzat, eta niretzat, zer suposatzen duen. Uste dut Lorcak, beste gauza askoren artean, oso ondo jakin zuela modernotasuna eta tradizioa lotzen, eta gainera beti jakin izan zuen tradizioetik egiten, tradizioari argia ateratzen, ez bere testuingurutik baina bai bere lekutik, bere egiteko. Uste dut Federico García Lorcak tradizioa bere egiten jakin zuela; uste dut goizean esandakoa nahastu egiten dela. Rafael Alberti izan zen eragin handia izan zuen bestea, eta uste dut gauza beraz hitz egiten ari garela. Esan dezadan halaber bi poeta hauek izan zirela lehenak, ni kultura antigalegoan hezitakoa naizelako; gero, jakina, Rosaliaren tristura eta poesia, naturarekin lotuta, ikusteko poeta ezezagun haren modua, *Día de las Letras Galegas* batean ezagutua: Luis Amado Carballo. Hau oso garbi dago, baina gero guztiok gara gure irakurketen seme-alaba, irakurri ditugun poeta erraldoiena. Baina

beti dakigu jakin tradizioetik abiatzen garela eta horrek freskotasuna ematen die idazten ditugun gauza askori.

**Antonio García Yebra:** Nik badut liburu bat gure tradizioeko estrofa eta koplak zaharrenen oinordeko dena bereziki. *Versos de pluma* izenburua du, Valladolideko Diputazio eta Udalak Jorge Guillén Fundazioarekin batera argitaratu zutena. Gogoan dut poemetako bat, hor dago, zorroan, gero irakur genezake. Poema gehienak aipu batekin hasten dira eta bat hauxe da:

*fruta nueva quien no la prueba*

eta poemak hala dio:

*verde la manzana y alta  
fruta nueva  
cuando la niña la prueba  
una lágrima le salta sin querer  
en su boca ha de saber  
a alcanfor*

eta abar.

Batzuetan egin izan dut, eta García Lorcaren oinordekogo sentitzen naiz Gloria Fuertesena baino, jakina.

**Juan Kruz Igerabide:** Badago kontu bat, ez dakit argitaratu duten besteen izenean ere hitz egin dezakedan... Uste dut haur poesia idazten dugun batzuek elizan entzuten genituen kantuen eragin oso handia dugula, eta nik behintzat, gogoan dut oraindik Apokalipsiaren pasarte bat euskaraz entzuteak eragiten zidan sentsazioa, nik ez nuen ezer ulertzen, baina sakontasun eta misterio sentsazioa eragiten zidan, gelditu egin zaidana:

*ezaugarri handi bat  
agertu izan da zeruan*

Ez dakit ezagun egiten zaizuen, agian niri bakarrik gelditu zitzaidan, Andre Mariaganako zikloan adibidez, *zeruko izarra, itsasoko izarra...* irudi mota hori guztia gelditu egin da.

(Entzule batek jarraitzen du kantari)

## ↪ Hizpide ↪



¿?: Badu laguna, ez zitzaion berari bakarrik gelditu.

**G.:** Badut honekin lotu daitekeen beste galdera bat. Haur poesiako aipuak zein neurritaraino dira haur poesiarenak berarenak, eta noraino jasotzen dute literatura unibertsalaren eragina, narrazioarena edo beste erreferentzia mota batenak?

**Antonio García Teijeiro:** Guztiok irakurle garen heinean, literatura mota guztietako irakurle heldu, irakurtzen dugun guztiaren zordun gara. Ziur irakurritako gauza asko gelditu zaigula haurrentzat idazten dugunean. Goetherengandik adibidez, hau da, haurrentzako ez diren gazetarik.

**Entzuleen artetik, Ana Pelegrín:** Zer ezaugarri izan beharko luke haur poesiak egileek haur poesia bezala sailka zezaten? Ezar liteke zenbait ezaugarri haur poesia zer den esango digutenak, edo poesia soilik, edo helduentzako poesia?

**Miquel Desclot:** Niri ez litzaidake formularik ematea gustatuko, baina Albaneil lagunarena gustuko dut: «hurrek ere irakur dezaketen hura da haur poesia».

**Juan Kruz Igerabide:** Ez dago formularik, norberaren esperientzia erabat ezberdina baita, baina badago pentsamendu modu bat hurrekin zuzenean konektatzen duena; nik uste dut pen-

tsamendu analogikoa dela pentsamendu razionalista baino gehiago. Poemaren garapen oso iluna, abstrakzio maila handiduna... –sorpesak ere har ditzakegun arren, beharbada soinuagatik gustatuko zaielako, ezer ulertu gabe ere– normala dena da hurrek pentsamolde modu batzuetara jotzea... , gaur goizean aipatu bezala Haikuekin, analogia mota hori, oso sakonak izan daitezkeenak baina harrapatu egiten dituztenak; eta zuk filosofia marxista azaltzen diezu bertsotan –egin izan da hori ere– eta ez du funtzionatzen. Badaude horrelako poemak, hurrek kantatzen zituztenak, puri-purian zeuden frankismoaren azken urteetan eta kantatzen zituzten. Baina aipatu dudana ez da ehuneko ehunean funtzionatzen duen formula ere.

**Antonio García Yebra:** Norberaren musaren eta garaiaren menpe dago neurri handi batean. Ez dakit, jar iezaezu gaur Machado kantatzen duen Serraten disko bat eta ondoren David Bisbal, ea zer gertatzen den, nor da hobe?, Machado eta Serrat edo Bisbal eta abesti horren ez dakit zein egile? Hurrei gehiago gustatzen zaie Bisbalena. Hobe delako esan nahi du? Pentsa dezala bakoitzak nahi duena. Nik ezetz uste dut. Norberaren musaren, unearen menpe dago. Eta batzuetan gertatzen da ahozko tradizioan oinarritutako *Versos de pluma* liburuarekin niri gertatu zitzaidana, eta beste batzuetan gauza zailago eta garaiakideagoak egiten ditut, beste pentsamendu eta irakurlearengandiko erantzun modu baten bila.


**Antonio Garcia Teijeiro:** Nik ez dut formula magikoetan sinesten, beraz, ez nintzateke inoiz formulak ematen ausartuko. Definizioak bilatzen ibili behar dugunik ere ez dut uste. Haurrari zer eman behar ez zaion da nik badakidana; lehenengo da haur bati ez zaiola ezer ezkutatu behar. Eta poesian ia dena egon daiteke islatuta. Hortik abiatuko nintzateke ni, eta haurrenganako eta erabiltzen den hizkuntzarekiko errespetu handiz egitetik abiatuko nintzateke. Ez da hizkuntza do-



hainik infantilizatu behar. Eta dezente kezkatzen nau haurrentzako tabuak izateak. Gainera, haurretaz ari garela, zein adinez ari gara? Nik, nire poesian zehar, nire liburu guztietan gai guztiak landu ditut, guztietan dago hausnarketa eragiten duen poemaren bat, irakurketa ezberdinak izan ditzakeena, hau da, poetikoki zerbait adierazteko modua ulertzeko modu adimentsua. Ez zaie beti nahi dutena eman behar, batzuetan igo egin behar zaie pixkat muga bestela betikoan geratuko dira, beraz, beharrezkoa dute lehen aipatu dugun bitartekari hori. Baina ez nioker ezer ezkutatu haur bati. Uste dut ez zaiola ezer ezkutatu behar eta errespetatu egin behar dugu, eta horrela asmatuko ditugu iritsi egingo zaizkien formulak. Eman behar zaiena aztertzen ibili gabe... txepeklerian ez erortzeko, David Bisbal baina txikian eman baino egiten ez duen poema mota horretan ez erortzeko.

**Ana Pelegrín:** Galdetzaile bezala kontratatu naute, eta ni zintzoa naiz kontratua tartean dagoenean. Laburpen bat egingo dut. Argialetxeek idazleak kontratatzen dituzte, baina haur kultura sortzen ari dira, bada haur kultura bat sendotu egin beharko litzatekeena. Uste dut batzuetan gehiegi nabarmentzen dela eskola kultura –bihoa eskolarekiko nire errespetua–, argialetxeek batzuetan gehiegi bideratzen dute lana –ez dakit asko, barkatu– zehar lerroetarantz, globalizatorantz... eta ari dira idazleei eskatzen –badakit– eskola kulturari erantzuteko, eta ez haur kulturari. Nik uste dut haur poesia, baita narratiba ere, haur kultura garaikidearen sorrerarako eremu handi bat ematen ari dela. Lehen aipatu ditugun ahozko tradizio hispaniarrak direla eta, azpimarratu nahi nuke tradizio espainiarrean –euskarri tradizioa ez dut ezagutzen baina Azkue eta tradizio galziarrari buruzko beste liburu batzuen bidez somatzen hasia naiz–, ahozko tradizio honetan bada, mitoak, formak... errepikatu egiten dira tradizio europarrean Erdi Aroko tradizio komunen hondar handia dagoelako. Eliza, eraikin,

arkitekturarekin bezala gertatzen da ahozko tradizioarekin, literatura konparatzailearen arrazoiak dira. Guztiak nahasteko egiten dudana galdera bat da hau, egin dezakegun onena dela uste dut eta. Belaunaldi poetiko honi egindako galdera. Eta otu zaidalako diotsuet horrela, belaunaldi poetiko –eta esan eta errepikatu egingo dut–, hilabete hauetatik aurrera izango delako haur poesia sortzaileak biltzeko erreferentzia puntua. Nik ez dakit zein diren formulak, baina uste dut zuek bakoitzarengan eta guztiengan badela egitura eta edukien formen bilakuntza. Uste dut zuegan (Desclo?) folklorea bada une batean nagusi, eta zuk (Juan Kruz) haiku-liburu zoragarri bat argitaratu berri baduzu, eta beste batzuk ahozko tradiziotik abiatu badira, eta zuk, Antonio (Teijeiro), poeta handien ahotsak birsortzen badituzu eta hizkuntza ez infantilizatuaren bila bazabiltza, baina kalitate poetiko handikoa izan daitekeen hizkuntza... Beno, ba hau jakingura poetikorako galdera bat da, dagoeneko iradoki dena. Egileek uste duzue 0-2, 2-4, 4-5, 5-6,... adin tarteetarako idatzi behar dituzuela poemak? Argialetxeek eskatzen dituzte adin tarte ezberdinetarako poema liburuak? Eztabaidarako gai in-





## ↪ Hizpide ↪



teresgarria dela uste dut. Eta bestetik, egileek liburu bat idazten dutenean, liburu bat bukatzen dutenean, gai bati heltzen diotenean edo heltzen ez diotenean, graduazioak daude, erritmo ezberdinak daude, pertzepzio ezberdinei luzatutako laguntzak daude?

**Antonio García Teijeiro:** Politikoei esan ohi duten bezala, pozten nau galdera honek. Hori da arazo handietako bat. Nire liburuetan nabaria da, eta harro nago horretaz, ez dago adin sailkapenik, eta uste dut gehienetan prozedura zailtasun maila ezberdinak daudela. Ni ez naiz nire liburuen adinetan kokatzeko gai. Ikusiko dugu gero errezitatuko ditudan poemetan. Adin jakin bateko haurrentzat idaztearen erabat kontra nago. Onar-tzen dut batzuetan ez dagoela horretan uniformetasunik, eta planteatzen dizutela arazo hori, liburuari bildumaren kolorea jarri behar zaiolako... Baina ni oso pozik nago aske izatearekin, eta beti esan ohi diet irakurleei poemak berrirakurtzeko, uste baitut poesia berrirakurtzeko sortua dagoela. Literatura guztia, baina poesia batez ere, adin ezberdinetan, geruza ezberdinekin, berriz irakurtzeko da. Baina batzuetan, bai, jartzen didate arazo hori. Hala ere uste dut haurrek ahalmen ezberdinak dituztela. Nahiko argi daukat nik hori,

batzuetan irteten ez zaidan arren. Baina ez dut adin ezberdineko haurrengan pentsatzen.

**Antonio García Yebra:** Haurrek duten gauza ona da hazi egiten direla. Horrela, zortzi urterekin poema liburu bat hartzen badute eta liburu hori etxean geratzen bada, berriz har dezakete hamar urterekin. Haurra aldatu egin da, poemak ez ordea. Orain, beharbada, ulertuko ditu lehen arreta erakarri ez zioten poemak, lehen oharkabeko izan zitzaizkionak. Hori edozein libururerekin gertatzen dela esan dakidake, bai. Nik hamasei urterekin irakurri nuen *Iliada* eta askoz geroago irakurri dut berriz eta ezberdina da, bera da baina ez da berdina. Nik ez dut adin kontu edo halako tiraniaren baten menpean idatzi, baina ni izan naiz tirano bilduma honetan. Batek poema bilduma bat bidali zidan eta poema horiek batasunik ez zutela ikusi nuen nik eta esan nion: «egizu liburu osoa gutxi gora-behera poema hauek bezalakoekin». Liburu hori da bildumako onenetakoa eta agortu zen lehenengoetakoa eta berriz argitaratu dugu. Ezin jakin, ez naiz sekula tiranizatua izan eta tirano izan naiz. Hor asmatu nuen eta uste dut idazlea oso pozik gertatu zela eta eskerrak eman zizkidan arrasto hori emateagatik, liburua bateratua eta oso ederra gertatu baitzen. Batzuetan komenigarria da.

**Miquel Desclot:** Nik ez dut inoiz adinean pentsatzen. Nire lehen liburua alabarentzat idatzi nuenean esan nion: «bizitza osorako duzu, ez ume zaren bitarterako bakarrik». Behin edo behin saiatu nintzen poematxo oso errazen bat idazten, alabak hiru urte bete berriak zituenean, esaten ikas zezan. Baina ulertzeko erraza ere ez zen, hala ere hari bost, belarritik iritsita liluratu egiten baitzuen; ulertu gabe ere sorgindu egiten zuen poemak, eta bi egunen buruan ikasia zuen nik hala nahi izan gabe ere. Ez dut, ordea, adinean pentsatzen.

**Antonio García Teijeiro:** Ados nago. Batzuetan erabili izan dut neurgailu txiki bat: eskolan haurrek jartzen duten aurpegia. Eta baztertu be-



har ditudan poemen arrastoa ematen didate. Hortik aurrera sorpresa asko hartzen dituzu. Pentsatzen duzu: «ba, hau oso abstraktua da, ez dute harrapatuko...», eta etorriko zaizu bost urteko neskatila bat eta esango dizunak txunditu egingo zaitu. Oso poema sakonarekin joan eta haren aurpegia... Poesiarekin gertatzen da hori batez ere.

**Antonio García Yebra:** Oso gauza bitxia gertatzen zait niri. Argitaratu nuen lehen liburuan, *Travesuras poéticas*, dagoeneko ahaztuta dagoena, *La jirafa* izenburuko poema batekin ez nengoen ni konbentzituta. Horregatik ez nuen eskoletan sekula errezitatzen. Liburuaren kontrazalean nire argazkia zegoen, oso argazki handia. Egun batean, kalean, bizikletaz zihoan mutil batek gelditu ninduen eta esan zidan: «Zu Antonio zara». Baietz esan nion: «Nire libururen bat irakurri al duzu?». Baietz hark, *Travesuras poéticas* irakurri zuela. «Eta gustatu al zaizu poemaren bat?» Baietz. «Eta, zein?», nik. «Jirafarena», hark. Ordudanik batzuetan errezitatu egiten dut, oraindik konbentzitzen ez nauen arren; bai, hartzen dituzu halako sorpresak.


**G.:** Eta argitaletxeen aldetik, ez dago liburua adin jakinetara mugatzeko ahaleginik?

**Antonio García Yebra:** Nik, bildumaren zuzendari naizen aldetik, editore lana egiten dut eta baimen osoa dut, ez dit inork ezer esan eta zerbait zentsuratzen bada nik egin dut. Liburuak bildumara egokitu daitezten saiatzen naiz. Zein haurrentzat den galdetzen didate, duela gutxi galdetu zidan emakume batek ea adin jakin baterako zen eta ezetz erantzun nion. Ez dugu inoiz adin mailarik ezarri. Edozein dela ere haurraren adina, irakurle ona bada, baliogarri izango zaio; eta gaur ez bada, etzi izango da. Bildumaren zuzendari bezala esan behar izan dut: «orrialde kopuru honetara mugatu behar zara, eta bestela neuk moztuko dut gero». Ez duzu orrialde gehiago eta moztu egin behar da. Baina poema mota

eta adinei dagokienean, maila edo haur motari dagokienean, ez dut inoiz neure burua aukeratu behar horretan ikusi.

**Antonio García Teijeiro:** Ba, ni bai. Lehen liburu bat, hiru urtetik aurrerakoentzat sailkatu zutena, kolore batean sartuta... eta harrituta geratu nintzen. Hiru urtetik 99ra artekoentzat baltz, irakur daiteke. Baina ez zitzaidan iruditzen hiru-bost urtekoentzat zenik, gero beste saila baitzeterren, gorria, bostetik aurrerakoentzat... eta niri tamalgarria iruditzen zait, besterik gabe. Gero aldatu egin zuten oker zebiltzala ikusi zutelako. Gehiegi sailkatzen dela uste dut.

**Ana Pelegrín:** Nik badut esperientzia bat. Irakurle antologa bezala «Haurrentzako poesia espainiarra, bat eta bi» egin nituen. Eta argitaletxeak, nirekin kontsultatu gabe, pentsatu zuen ezin zitekeela izan lehenengo eta bigarren alea haurrak hazi egin zirelako, eta jarri zuen «Gazteentzako poesia espainiarra». Niri izua eragin zidan. Edizioa egina zegoen. Eta uste dut hori argi izan beharko genukeela haur poesian. Hemenetik harako adin tartean pentsatzen dutela esaten dute egileek. Baina adinari begira eremuak murrizten joatea... sistema editorialaren tranpan erortzea litzateke generoaren etorkizunerako.



## ↪ Hizpide ↪

**Miquel Desclot:** Badago argitaletxeen beste zentsura mota bat, nire semearentzako liburua bukatzen ari nintzela ikusi nuena –lehenengo alaba izan nuen eta gero semea, eta liburu bat idatzi behar izan nion; 63 poema lehenengoari eta 63 bigarrenari–. SM-ren filial katalan batekin (Cruilla) harremanetan nengoen garai hartan. Liburua bukatzen ari nintzela aipatu nion zuzendariari. Liburua bukatu nuenean, zuzendaria beste bat zen eta ez zuen poesia libururik nahi; generoa zentsuratu zuen zuzen-zuzenean. Eta hori da normalea, ohikoa da poesia argitaratu nahi ez izatea.

**Antonio García Yebra:** Niri ere gertatu zitzaidan antzerako zerbait. Argitaratzaile batek katalogotik at zegoen liburu bat eskatu zidan bere argitaletxean ateratzeko. Nik esan nion: «hobe izango da liburu berri bat egitea, dagoeneko ari bainaiz bat lantzen eta oso aurreratuta daukat». «Ados, bidaliezadazu», hark. Bukatu nuen, denbora pixkat gehiago luzatu nintzen, ez baitira frijitzera botatzen diren txurroak. Argitaletxera iritsi zenerako zuzendaria beste bat zen eta liburua ez zen argitaletxe horretan argitaratu. Halakoak gertatzen dira batzuetan. Nik zuzentzen dudan bilduma honetan, beste leku batzuetan bezala, ez da beharrezkoa liburuari kanpo seinalerik jartzea, ez ilustrazio motan, ez ezertan... testuak berak adierazten baitu irakurle jakin bati zuzenduta dagoela. Bilduma honetan bi liburu daude, jartzen ez badu ere, haur txikiei zuzendutakoak, adimen gutxiagokoei, beste sentsibilitate mota bat dutenei: Ana María Romero Yerbaren *Ronda de nanas* eta ekainean irten den *El mundo de Daniela*; ilustrazioak ikusita ikusten da agian haur txikiagoen-

tzako direla. Badirudi lehenengoan sehaska-kantak txikienentzako direla, eta bigarrenean ilustrazioek ematen dute hori aditzera. Bestela, ez dago marko edo markarik. Eta esan dezadan bilduma hau laster irekiko dela liburu elebidunetarako, euskara-gaztelania, katalana-gaztelania, galiziera-gaztelania. Txileko idazleak dauden bezala, hau –Teresa de Melo– kubatarra da, eta mundu osokoak ditugu, eta hurrengo zenbakietan testu elebidunak onartuko ditugu. Niri esan baino ez duzue.

**G.:** Beste galderarik ez baldin badago... zortziak dira eta poesia errezitaldiarekin has gaitzke. Eskerrik asko...

**Ana Pelegrín:** Gehiago nahasten jarraitzeko... Ahozko tradizioa Erdi Arotik dator gutxi gorabehera. Bost mendetan zehar errepikatu da, herri poesia mota bat da. Nik ezagutzen ditudan gazteek rap-a darabilte tailerretan adierazpen era bezala. Galdera pozoitua. Gazteek esaten didate: «Tira, Salinas ez, emaidazu beste metrika hau». Badakit aurre-heziketa egin behar dela baina, berrikusitako beste forma batzuk sorkuntza birmoldaketarako aukera eskaini duten bezala, ba al du rap-ak horretarako aukerarik?

**Antonio García Yebra:** Uste dut edozein forma bete daitekeela zaborrez edo kalitatezko poesiaz. Beraz, rap-ean sar ditzakezu Salinasen irudiak, eta ikusiko duzu zein polit geratzen den.

**Ana Pelegrín:** Eta Juan Kruzenak?

**Juan Kruz Igerabide:** Errezitaldian irakurriko dut rap-etik oso hurbil dagoen erritmodun bat.

**G.:** Beste galderarik? Ederki, bukatu dugu. Esker mila guztioi.

